

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

56 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



Ongi etorri errefuxiatuak!

Sozialismoa edo basakeria!

2. Editoriala: Euskal Herrian ere zerrenda bateratua eskuina garaitzeko eta gizartea eraldatzeko!
4. Munduko ekonomia amildegi berriaren ertzean. Nolako ondorioak izango ditu Txinako krisiak?
8. Syrizaren aukera berria: negozio mahaiean herri greziarraren aurkako neurriak onartzen jarraitu edo programa antikapitalista defendatu • 10. Hezkuntza publikoaren aldeko gazteriaren borrokak Wert botatzea eta errebalida frankistak bertan behera uztea lortu du • 12. Kurdistan-Turkia: Erdogan gerra bultzatzen eta ezker kurdia eta turkiarra erreprimitzen • 16. Ehunka mila errefuxiatu gerratik eta basakeria inperialistatik ihes egiten. Europa kapitalistak errepresioarekin, hesiekin eta xenofobiarekin erantzun du

Euskal Herrian ere zerrenda bateratua eskuina garaitzeko eta gizartea eraldatzeko!

Garrantzia handiko ikasturte politikoa hasi dugu Euskal Herrian langile klasearentzat eta gazteriarentzat. Datozen hauteskunde orokorretan PP botatzeak ondorio garrantzitsuak izango lituzke Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko borrokan eta gehiengo zapalduaren bizi baldintzen aurkako murrizketa sozialak eta erasoak amaitzeko helburuan. Rajoyren gobernuaren neurri kapitalisten aurkako mobilizazioek bere adierazpena izan zuten maiatzaren 24ko hauteskundeetan herritar batasunaren hautagaien garaipenarekin Barcelonan, Madrilen, Zaragozan eta beste udaletxe askotan gobernu eskuratuz aliantzei esker: Iruñean, Valentzian, Sevillan... Azken urteetako esperientziari begiratuta, Estatu osoan eta Euskal Herrian ere borroka egiten duen ezkerren indarrak elkartzea aprobetxatu beharra daukagun aukera historikoa da.

HELBURU BERDINAK DITUZTE PP ETA EAJ-REN POLITIKAK

Rajoyk aipatzen dituen hobekuntzetatik oso urrun, bere kudeaketaren balantzea oso garbi dago: desberdintasun sozialak handitu egin dira eta eskubide demokratikoak, berriz, murriztu. PP gobernura iritsi zenetik soldatek behera egin dute etengabe: %-1,9 2011n, %-3 2012an, %-1,5 2013an, %-0,6 2014an, eta soldatapekoen herenak, hau da 5,7 milioi langilek, hilean 600 euro baino gutxiago irabazten dute. Gazteen langabeziak %40tik gora jarraitzen du, eta epe luzeko langabetuak (hiru urte

baino gehiago) 2011ko %11tik 2014ko %25era pasa dira (1.940.000). Hau da eskuinak goraipatzen duen errekupeazioa: aberatsak aberatsago dira, eta bitartean pobrezia zabaltzen doa. Adin txikikoen pobrezia ikaragarri hazi da, hiru milioi umeetara iristeraino. Pobrezia honen gorakadan Estatu espainiarra hirugarren tokian dago Europako Batasunean eta OCDEen, Letonia eta Greziaren atzetik bakarrik.

Euskal Herrian ere egoera larria da. Europako estankamenduak eta ekonomia txinatarren gainbeherak euskal industria kolpatuko dute enplegu gehiago suntsituz, Urkulluren gobernuak berak onartu duen

bezala. Noski, euskal burgesiak eta EAJk ez dute asmorik bide orria aldatzeko: murrizketa sozialak, soldata jaitsierak, enplegua prekarizatzeko neurriak eta mota guztietako erraztasunak patronalari honen irabaziak handitzeko.

ZERRENDA BATERATUA ETA ALIANTZEN POLITIKA

PP da Estatu espainiarreko botere-tsuen interesen ordezkari nagusia, baina nazio zapalduetako eskuina ez da atzean geratzen. Lehen EAJ aipatu dugu, baina berdina esan genezake CiUren gobernuen Catalunyan. Osasun eta hezkuntza publikoko murrizketetan, ustelkerian eta mobilizazio sozialen errepresioan abangoardia izan dira. Catalunya izan zen 2014an tortura eta biolentzia polizialaren salaketa kasu gehien izan zituen lurraldea, eta horiek guztiak Artur Masen gobernupean.

Noski, PPk eta nazio zapalduetako eskuinak laguntzaile onak izan dituzte beren politikak aurrera eramateko: PSOE, CCOO eta UGTko zuzendaritzen kolaborazio estua. Bake sozialaren politika defendatu, kapitalismoaren logika errespetatu eta banka handiaren eta botere ekonomiko handien esanetara dauden ordezkari hauek laguntza bikaina dira eskuinaren erasoentzat. Baina, aldi berean, langile klasea eta gazteria urrundu egin dira erakunde hauetatik. Hori ikusi da kalean eta sortu diren fenomeno politiko berrietan, eta honek erregimenaren oreka astinarazi du. Sozialdemokraziaren gainbehera eta Ahal Dugu-Podemos bezalako erakunde politiko berrien sorrera ez dira zerutik erori.

Kaleko mobilizazioek batasunaren sentimendua indartu dute: greba orokorrak, zerbitzu publikoen aldeko marea sozialak, euskal preso politikoen aldeko mobilizazioak, etxe





kaleratzeen aurkako plataformaren ekintzak, Frackingaren aurkako borroka eta izan diren hainbat eta hainbat langile borroka. Egoera honetan, Europara iristen ari diren ehunka mila errefuxiatuen alde sortu den elkartasuna ez da kasualitatea: desberdintasun nazional, etniko edo erlijiosoaren gainetik sortzen den zapalduen internazionalismoak dardarka jartzen du klase dominatzailea.

Euskal Herrian ere borrokan ari den ezkerren batasunaren aldeko jarraitzaile indarra hartu du. Eta korronte honen oinarria honakoa da: gure klaseko etsaiak garaitzea, bai bandera rojiguldaren izenaren lege frankistak onartzen dituztenak eta baita nazioen eskubide demokratikoez zinikoki hitz egin, baina herri horiei politika ankerrak aplikatzen dizkionak ere. Beharrezkoa da autodeterminazio eskubidea defendatzen eta sistema kapitalistaren aurka borrokatzen dugun guztion batasuna.

Herstura kapitalistaren eta Estatuaren errepresioaren aurka eta erabakitze eskubidearen alde Herriarren Batasuna sortzeko borondate honi erantzun egin behar zaio. Hainbat pertsonen eta ezker abertzalearen zuzendaritzak pauso oso positiboak eman dituzte zentzu honetan. Hor daude Joseba Asiron Iruñeko alkatearen adierazpenak datozen hauteskunde orokorretarako zerrenda bateratu bat osatzearen alde “Nafarroan izandako aldaketa Madrilera eramateko”; Sabino Cuadra Madrilgo kongresukidearenak “aldaketaren indarren zerrenda bateratua sortzea aurrera pauso handia izango litzateke Kongresuko eta Senatuko hauteskundeetarako” esanez edo Hasier Arraiz Sortuko presidentearen hitzak indarrak elkartze-

aren alde “78ko erregimena hausteko ezker eraldatzailearekin”. Honek guztiak erakusten du nolako giroa dagoen borroka hau irabazi nahi duten milaka pertsonen artean.

Arrazoi hauengatik, inoiz baino beharrezkoagoa da ezker abertzalearen zuzendaritzak bere politika aldatzea. Alde batera utzi behar da EAJrekin eta euskal burgesiarekin akordioak bilatzeko politika. EAJk PPren klaseko helburu berberak defendatzen ditu, banka eta enpresa handien interesak, soldadak eta baldintza sozialak murriztuz, zerbitzu publikoak pribatizatuz eta eskubide demokratikoak gogor erasoz. Euskal burgesia Estatu espainiarreko burgesiaren aliatua da eta behin eta berriro erakutsi du aukera izan duen bakoitzean.

Gure ustez akatsa da erabakitze eskubidearen alde egiteko sortu den Gure Esku Dago plataformaren lehen lerroan edo argazkietan Xabier Arzalluz (EAJko presidentea 1980 eta 2009 artean) edo Juan Jose Ibarretxe (Lehendakaria 1999 eta 2009 artean eta ezker abertzalearen aurkako errepresioaren eta ilegalizazioaren babeslea besteak beste) bezalako pertsonaiak jartzea. EAJ ez da sartu plataforma honetan autodeterminazio eskubidearen alde borrokatzeko, helburu honen lorpena oztopatu eta geratzeko baizik. Troiako zaldia da, Eusko Alkartasuna EHBildu barruan den bezala.

Mota hauetako aliantzen ondorioak larriak izan ohi dira. Horieta-ko bat da EHBilduren programan orain arte ezker abertzalearen helburu estrategikoa izan den sozialismoa hitza bera ere ez agertzea. Ezker abertzalearen aliatuak ez dira ez EAJ eta ezta euskal kapitalistak

ere; gure aliatuak Euskal Herriko, Estatu espainiarreko eta Estatu frantziarreko langileak, masa zapalduak eta hauen erakundeak dira.

SOZIALISMOA ETA AUTODETERMINAZIOA, BORROKA BERBERAREN BI AURPEGI

Aukera historikoa dago ezker abertzaleak Euskal Herriko indarren batasunaren prozesua bultzatzeko eta zerrenda bateratuaren eraketan paper erabakigarria jokatzeko. Egia da prozesu honetan laguntzen ez duten mota askotako iritziak, kontraesanak eta diskurtsoak daudela. Hori da Roberto Uriarte EAEko Ahal Dugu-Podemoseko idazkari nagusiaren kasua: ezker abertzalearekin batera joateari uko egin zion hasieratik. Pablo Iglesias ere antzekoa egiten ibili da IUrekin. Hala ere, mugimenduaren presioa indartsua da eta batzuek duten Herriarren Batasuna Podemosen ondarea denaren ideiak ez du zentzurik.

Beharrezkoa da benetako aldaketa nahi dugunok indarrak elkartzea, eta hori lortzeko beharrezkoa da kapitalismoaren logikarekin hausteko gai izango den politikaren alde egitea. Gehiengoaren eskubideak, hala nola autodeterminazio eskubidea, lanpostu eta etxebizitza duina izateko eskubidea, kalitatezko osasun eta hezkuntza publikoa izateko eskubidea, zerbitzu sozialen eskubidea... ez dira posible gaur egungo eredu politiko eta ekonomikoan, erreformatu ezin daitekeen kapitalismoan.

Greziako adibide gogorrek erakusten du, beste behin, diskurtso politen gutxi balio dutela indar handia duten etsaiei aurre egin behar zaienean. Horregatik, nahi eta behar dugun Herriarren Batasunak programa sozialista eta internazionalista behar du, autodeterminazio eskubidearen eta euskararen defentsarekin batera nazioen gainetik langileen batasuna eta ekonomiko sektore estrategikoen nazionalizazio politika defendatuko duena. Kapitalismoaren logikarekin amaituko duen eraldaketa sozialistaren programa behar dugu, hau da bide bakarra aldaketa politikorako.

Munduko ekonomia amildeg berriaren ertzean

Nolako ondorioak izango ditu Txinako krisiak?

Ekonomia kapitalistak perspektiba dramatikoak du aurrean. Uda baino lehen, AEBetako errekupeazioak ahultasuna erakutsi zuen eta Europako estankamentua sakondu egin zen.

Bestetik, lehengaien prezioen erorketa eta munduko komertzioaren atzerakada eman ziren. Baina faktore hauei guztiei arazo larri bat gehitu zaie: burtsa txinatarren erorketa ikaragarria eta yuanaren debaluazioa (munduko burtsetan 5 bilioi dolar galdu ziren bost astetan bakarrik).

Alarma guztiak piztu dira: planetako bigarren potentzia den ekonomia txinatarrean gehiegizko ekoizpenaren krisia zabaltzen ari da.

IBON ARTOLA

'MIRARI TXINATARRETIK' ATZERALDIRA

Txinako gertakizunek erakusten dute zergatik ezin duen kapitalismoak bere oreka ekonomiko eta politikoa lortu. Subprime-en erorketa izan bazen AEBetako eta Europako atzeraldi handiaren izerbergaren punta, munduko burtsetako dardarek erakusten dute aktibitate manu-fakturoaren erorketa eta itolarria eragiten duen industria txinatarra gehiegizko gaitasuna.

Ekonomia txinatarraren garapena aztertze-ko beharrezkoa da ezagutzea gainontze-ko potentziekin dituen ezberdintasunak eta antzekotasunak. Errestaurazio kapitalistaren prozesua arrakastarekin gidatu zuen Alderdi Komunista Txinatarraren (AKT)

zuzendaritzak. 1949ko iraultza-ren lorpenak suntsitu egin zituzten (bai kanpo komertzioaren monopolioa eta baita planifikazio ekonomikoa ere), eta bitartean ekoizteko baliabideak eta

zerbitzu publikoak pribatizatu ziren, pilaketa kapitalista abia-dura handian garatuz. AKTko burokrazia stalinista burgesia berri bihurtu zen, Estatuko eta ekonomiako (sektore publiko in-dustrialia eta bankarioa) zati ga-rrantzitsuenak kontrolpean iza-nez. Baldintza hauetan, eta ne-kazal guneetatik joandako esku-lan erdi-esklabu ugariarekin, inbertsio multimilioidunak era-karri zituen Txinak superabit komertzial erraldoia lortuz.

Bi digituetako hazkuntza zi-frac eskuratu zituen Txinak eta honen eragina mundu osoan naba-ritu zen: lehengaiak esportatzen zituzten herrialdeen irabaziek gora egin zuten nabarmen es-kaera txinatar ikaragarriaren ondorioz, eta potentzia kapita-





listetako inbertitzaile handiek irabazi bikainak eragiten zituzten negozioak egin zituzten. Japonia eta Alemania bezalako herrialde aurreratuak Txinara bideratu zuten beren ekoizpen industrialaren zati garrantzitsu bat. 2008an krisia hasi zenean, superabit komertzialari eta Estatu txinatarraren estimulu programei esker egoera hari aurre egitea lortu zitzaion aldi baterako behintzat. Baina hala ere, Estatuaren interbentzioak ez du lortu gehiegizko ekoizpena saihestea. AEBetan eta Europan gertatu zen bezala, burbuila espekulatiboek eta kontrolik gabeko zor publikoaren eta pribatuaren gorakadak ekonomia txinatarraren zati garrantzitsu bat sostengatu dute azken urteetan.

2008tik, munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) %50aren arduraduna izan da Txina, baina egoera aldatzen ari da. Gehiegizko ekoizpenaren krisiak industria txinatarraren ehunari eragiten dio, kanpoko eta barneko faktoreek elikatuta. Alde batetik, munduko kapitalismoaren gune handietako atzeraldiak Txinaren esportazioak jaitsi di-

tu eta, bestetik, industria nazionalaren eskaera mantentzeko Estatuaren laguntza programak (bereziki azpiegitura eta etxebizitzaren eraikuntzan) ez dira gai izan gehiegizko ekoizpenak eragindako arazoak konpontzeko eta, gainera, desoreka gehiago sortu dute. Laguntza programa horien baliabideak bukatutakoan altzairuaren eta zementuaren eskaera kolapsatu egin da. Bere urrezko urteetan, munduko altzairu ekoizpenaren %48 hartzeraino iritsi zen Txina. Orain, iturri ofizialek urteko 280 milioi tonako gehiegizko gaitasuna onartu dute. Zementuaren sektorerako ere garai txarrak dira, eta bere izaera estrategikoa garbi dago: Txinak, urte batzuetan bakarrik, AEBek XX. mende osoan baino zementu gehiago kontsumitu du.

Gehiegizko ekoizpenaren eraginez, milaka milioi dolar burtsa eta sektore inmobiliario txinatarrera joan dira, orain lehertzen ari den burbuila puztuz. Aldi berean, prozesu honek zorraren handitzea ekarri du: 2007 eta 2014 artean lau aldiz biderkatu zen BPGren %282ra iristeraino.

Zor txinatarra, 2007ko 7 bilioi dolarretatik 2014ko 28 bilioietara pasa zen; BPGri dagokionez, AEBetakoa edo Alemaniako baino handiagoa da.

Gehiegizko ekoizpenaren krisia ez da kapitalismo txinatar gaztean bakarrik zabaldu. Atzo munduko ekonomiaren hazkuntza elikatu zuena, orain bere aurkakoa bihurtu da. Txinaren erorketak, munduko ekonomia-tik tiratzeko gai ez denak, atzetik eramango ditu beste asko. Amerika Latinan eta Ertamerikan, Afrikako zati handi batean, Errusian, Australian edo Hego Korean ari dira ondorioak ordaintzen dagoeneko. Brasil da adibideetako bat: bere merkatuetako balioak laurden bat jaitsi dira urte honetan, bere txanponak bere balioaren herena galdu du dolarraren aurrean eta bere BPG %2 eroriko da gutxienez 2015ean.

Eta beste gai garrantzitsu bat dago: bere barne merkatua murrizten den heinean, burgesia txinatarrak irtenbide bat bilatzen du modu oldarkorrean bere esportazioak handituz. Txinan

HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

AURREKO ORRIALDEAN HASTEN DA

dauden atzerriko inbertsioak eta Txinak atzerrian dituen inbertsioak maila berean daude. Munduko merkatua kontrolatzeko borroka gogorra dago, bereziki Txina eta AEBen artean.

TXINAKO KRISIAREN ONDORIOAK MUNDUAN

Txina atzeraldian sartzen bada, nola eragingo die honek AEBei? Burgesia estatubatuarrarentzat bere lidergoa indartzeko aukera izango da? Ala, bere errekupeazioa are gehiago ahulduko lukeen arazoa?

%2 inguruko hazkuntza ekonomikoarekin, AEBetako errekupeazioa Depresio Handitik izandako motelena eta ahulena da. Lan prekarietatea handitu egin da, eta honek kontsumoaren errekupeazioa kaltetzen du. Autoritate estatubatuarrak hartutako neurrien fruituak oso eskasak dira, eta ez dira erorketa berri bat saihesteko inolako berme.

2008an Lehman Brothers erori ondoren, gobernu estatubatuarrak ekonomia likideziarekin betetzea erabaki zuen. Obamaren administrazioarekin diru merkea bermatu da zerora gerturatzen ziren interes tipoekin, eta milaka milioi dolar gastatu dira zor publikoaren bonoak erosten. Hala ere, gastu honek guztiak (urte honen hasieran zor publikoa 18 bilioi dolar ingurukoa zen, bere BPGren %107) ez ditu emaitza onak ekarri. Hainbestetan lau haizetara zabaldu-tako enpleguaren sorrera oso ahula da, sortutako aurreikuspenen azpitik dago. Lan merkatu prekarioa du, eta gobernuak aipatzen duen %5,3ko langabezia tasa baino altuagoa dago.

Kapitalismoaren herrialde gorenaren den honetan, sistemak era-

kutsi beharko luke eskaini dezakeen guztia, baina errealitateak erakusten du sei urtetako errekupeazioak soldata murrizketa orokortua ekarri duela. Langile pobreen kopurua handitzen ari den honetan, egoera honi lotuta dauden greba garrantzitsuak antolatu dituzte janari azkarreko langileek, irakasleek eta portuetako langileek. Era berean, ezin dira ahaztu poliziak eraildako afro-amerikarren aldeko manifestazio masiboak ere.

Baldintza hauetan, Txinako ekonomiaren atzeraldiak oso ondorio larriak izan ditzake industria estatubatuarraren (merkatu txinatarrera bidaltzen dituen esportazioak jaitsi egingo lirateke) eta finantziazio gaitasunean (Altxor txinatarrak bono estatubatuarraren inbertituta dituen milaka milioien zati bat aberri-ratzeko mehatxuaren ondorioz). Txinaren erorketak lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeei bakarrik eragingo dien ideia erabat faltsua da. Hazkuntza txinatarrari esker aberastu ziren multinazional estatubatuarrak, europar eta japoniarrek ziklo aldaketaren ondorioak izango dituzte.

Krisi txinatarrak ondorio gorrak izango ditu European ber-

tan ere. Europako Batasuneko ekonomia nagusia den Alemaniak (2014an bere BPGren %38,92 hartu zuten esportazioek) Txina laugarren tokian du bere esportazioetarako. Europako herrialde askotan esnearen sektorean izan diren gatazka eta mobilizazioak Txinara zihoazen esportazio europarren murrizketari dautu de lotuta.

Mehatxua ez da aspektu haue-tara mugatzen. Autoritate txinatarrek %3 devaluatu dute yuana beren manufakturrek prezio lehiakorragoak izateko eta honek munduko merkatuko beste potentzien kuotak arriskuan jartzeaz gain, merkatuen eta zerbitzuen prezioen beherakada orokortua eragin dezake. Eta deflazioak, soldadak are gehiago jaitziko lituzke, enpleguaren sorrera zailduko luke eta kontsumoa behera joango litzateke. Noski, yuana-rekin gertatu denak gerra komertzialak eta euroaren eta dollarraren devaluazio lehiakorrek astintzen ditu.

Txinako ekonomiak behera egiten jarraitzen badu, mundu mailako atzeraldi sakonago eta luzeagoko fase berri batean sar gaitezke, eta honen ondorioz, gatazka sozialak, politikoak eta



militarrak azken urteetan bizitutakoak baino handiagoak izan daitezke.

POLITIKA KAPITALISTAREN ARAZOAK

Txinako berri txarren etorrerarekin AEBetako Erreserba Federalak udazkenean interes tipoak igotzeko zuen planei buruzko eztabaida ireki da. Analista batzuek interes tipoak igotzea hazkuntza-erentzat kaltegarria izango dela diote; beste batzuek ordea, interes tipoak ez igotzea akats larria dela defendatzen dute.

Errealitatean, ordea, ez posizio bat eta ezta bestea ere ez dira gai kapitalismoaren krisiari irtenbide bat topatzeko. Estatuen eta banku zentralen neurri ekonomikoek ezin dute arazoa konpondu. Estatu burgesak tamaina honetako atzeraldiari aurre egiteko erabil ditzakeen instrumentu ekonomikoen eraginkortasuna bere mugetara iristen ari da. Interes tipoen jaitsierak, zor kronikoak eta likideziaren sarre-ra masiboak bezalako neurriek (Txinak berak hartutakoak) luza dezakete aldi batetarako hazkuntza ekonomikoa, edo baita ekonomia erorketa koiunturala leundu ere, baina ezin dute inolaz ere gehiegizko ekoizpenaren krisia gainditu.

Merkatu ekonomia eraren mar-koan, egoerari bira emateko oinarritzko faktorea kapitalaren inbertsioen handitze nabarmena da, ekoizpenaren eta enpleguaren gorakada. Baina honen lekuan murrizketa politikak, soldata jaitsierak, lan prekarietatea eta pribatizazio masiboak ikusten ari gara, herrialdeen zorra puztuz eta burbuila espekulatibo berriak sortuz. Bai, kapitalisten irabaziak handitzen do-



az, kapitalaren pilaketa ekoizpen inbertsioetik igaro beharrik gabe handitzen ari da, aberatsak aberatsago dira... baina pobrezia eta miseria izurrite bat bezala zabaltzen ari dira.

SOZIALISMOA EDO BASAKERIA

Krisia ez dago konponduta. Kapitalismoak ekoizteko indarren suntsiketa handiagoa eskatzen du, berriro goranzko ziklo bat hasi eta inbertsio sendoak egiteko oinarritzko sektorean: industrian. Datu ekonomiko txinatarrek adierazten dute munduko herriarren bizi baldintzek okerrera egiten jarraituko dutela. Honela, merkatuak kontrolatzeko potentzia inperialista handien arteko borrokak gogortu egingo dira pobrezia, miseria, langabezia eta hildako gehiago eraginez.

Gaur egungoa bezalako gertakizun historiko bat bilatu nahi badugu 29ko Crackera, 30eko hamarkadara eta Bigarren Mundu Gerrara begiratu behar dugu. Egia da historia ez dela gertakizunen errepikapen sinplea, eta Lehena eta Bigarrena bezalako mundu gerrak baztertuta daudela.

Baina, aldi berean, beharrezkoa da esatea herri greziarra sufritzen ari dena gerrate batek sortutakoarekin bakarrik konpara daitenkeela; herri siriarra eta ukrainarra biolentziazko eta suntsiketazko amesgaiztoa bizitzen ari dira, baita ere Eritrean, Sudanen, Nigerian, Libian eta Palestinan ere; Mediterraneoko urak lurperatzen ari diren milaka eta milaka gizakiren zerrenda lotsagarri eta ankerra ere amaigabea da; basakeriatik eta heriotzatik alde eginez Europako ateak joz ari dira beste ehunka mila herritar... Nola ez ekarri burura aurreko mendeko mundu gerren irudiak Damascoko edo Mariupoleko bonben ondorioak edo Europa "zibilizatuko" mugetan ehunka mila pertsona jipoituak eta umiliatuak direla ikusita.

Hondamendi eta sufrimendu honekin batera langile klasearen kontzientzia altxatzen da, duintasuna eta gizateria suntsitzen dituen egoerekin hunkituta. Bide gurutze historiko honetan gehiengoaren alde egiteko faktore erabakiorra honakoa da: langileen borroka antolatua kapitalismoarekin bukatzeko programa defendatuz, sozialismoaren aldeko borroka.

Syrizaren aukera berria: negoziazio mahaian herri greziarraren aurkako neurriak onartzen jarraitu edo programa antikapitalista defendatu

Herri greziarrak beste aukera bat eman dio irailaren 20ko hauteskundeetan Tsiprasi. Baina honek ez du esan nahi inolaz ere Syrizaren gobernuak aurreko hilabeteetan egindako politikak erabateko babesa duenik. Bere bozka emailen artean ere Tsiprasen ibilbidearekin kritikoak direnak aurkitzen dira. Orain arteko bidea jarraitzen badu, hau da Troikaren esanak betetzea, bere aldeko babesa gero eta gehiago murrizten joango da.

URTZI REGUERO

Tsiprasek urtarrilaren 25ean jasotako babesaren ondoren egindako politika kolpe gogorra izan da Greziako eta munduko milioika langilerentzat. Ekainaren 5eko OXIren garaipenaren ostean jokaturako paperak agerian utzi zuen Syrizako Tsiprasen zuzendaritzak ez duela kapitalismoaren logikari aurre egiteko estrategia koherenterik. Troikaren aurrean amore emanda, eskuinerantzko joe-

ra areagotuta, Tsipras eta bere ki-deak aldaketa politikoaren gidari baino hersturaren txotxongilo bilakatu dira.

Agerian zegoen Europako burgesia modu batera edo bestera saiaturako zela OXIren garaipenari buelta ematen negoziazio mahaian. Era-kutsi behar zuen ez duela aldaketarik ekarriko inolako bozketa demokratikok eta masei beren ausardiagatik ordainaraziko diela, hain zuen ere Syrizako agintarien ahultasun eta oportunismo politikoa ba-

liatuz. Egiaren unean, Europako eta Greziako kapitalistak inolako zalantzarik gabe aritu dira beren klaseko interesak defendatzen. Eta berdin jarraituko dute iraileko hauteskundeen ondoren.

Gertakari hauen garapen bizkor honek ikasgai baliagarriak ditu. Tsiprasen eta Syrizako zuzendaritzaren politikak kapitalismoaren oinarriak aldatzen ez dituen “aldaketa politikoa” iragartzen duen eredu erreformistaren porrota erakusten du. Porrot hau proiektzio publiko handia duten Europako ezkerreko korrante askok jasan dute, Tsiprasen politika tinko justifikatu baitute argudiatuz “indar korrelazio desagokia” dela politika sozialista aurrera eramateko. Tsipras euroarekin eta EBrekin haustera ausartu izan balitz, teoriko erreformista hauen arabera, esperimentuak porrot tamalgarria jasango zukeen.

Beren ardura historikotik alden-du dira agintari hauek masen ustezko “heldutasun iraultzailearen faltaren” atzean ezkutatuta, baina ez dute ezer berria asmatu. Irageanean beste zenbaitek esandakoa errepikatu besterik ez dute egin. Baina ezin da gertakariarekin jolasean aritu. Langile klasearen eta gazteriaren mobilizazioak OXIren garaipen historikoa posible egin zuen pasa den uztailaren 5ean 22 puntu-ko diferentzia lortuta. Honek poz eta zirrara handia piztu zuen Europako eta munduko zapalduengan. Zaila da klase arteko borrokaren azken urteetako historian kapitalismoaren errezetekin amaitzeko langileek duten borondatearen halako adibide garbirik aurkitzea: greba orokorretan, manifestazio jendetsuetan, lantokien okupazioetan eta hautes-



tontzietan ikusi da borondate hori; horixe da gizartearen benetako korrelazio indarra. Greziako ikasgaia haxe da: beste behin, etsaiari aurre egiteko ez du balio ez oportunismoak eta ez hitzontzikeriak, baizik eta masen ekin-tza sendoak, neurri iraultzaile ausartekin eta merezi duen zuzendaritza politikoarekin.

KRISIA SAKONTZEN ARI DA

Ez dago zantzurik Memorandumak greziarren bizi baldintzak hobetu dituela erakusten duenik. Parlamentuan herstura lege berriak onartuta, Tsiprasen gobernuak 3.400 milioi euro ordaindu zizkion Europako Banku Zentralari eta 7.160 milioi EBk uztailean emandako mailegu-zubiagatik. “Laguntzaren” lehen zatia jasotzeko Greziak bete beharreko sine qua non baldintzak hauek ziren: ordainketako 26.000 milioietatik, 10.000 Luxenburgoko kontu batera pasatu dira banka greziarra birkapitalizatzeko; 13.000 gobernuari eman zaizkio eta %81 kanpo zorra ordaintzeko baliatuko da (10.560 milioi); gainerako 3.000 milioiak datozen hilabeteetan antzeko helburuetarako erabiliko dira.

Syriaren gobernuak zorraren ordainketa bidegabea bertan behe- ra utzi beharrean puztu egin du Europako bankuen hartzekodunen interesak ordaintzeko egindako milaka milioi euroko transferentziekin. Hilabete hauetan Demokrazia Berriaren eta PASOken estortsio politika berbera erabili du: enpresa publikoen pribatizazioa, pentsio sistemaren erreforma (erretiro adina 67 urtetara atzeratu eta prestazioak murriztu dira) eta negoziazio kolektiboan sindikatuen boterea murriztu, kaleratzeak erraztu eta greba eskubidea murriztuko duen lan erreforma. Zeren truke? 2008an lehertu zen krisiaz geroztik herrialdeak bizi duen hondamendian sakontzen jarraitzearen truke.

Elstat Greziako estatistika zerbitzuen txosten baten arabera, uztailean industria ekoizpena ikara-



garri murriztu zen eta 17.000 langilek galdu zuten lanpostua; 2001az geroztik izan den zifrarik okerre-na da. Beste 40.000 langileri lanaldi osoa lanaldi partzialarekin aldatu diete lan erreforma berriaren ondorioz; eta bien bitartean langabezia tasa ofiziala %25ean mantentzen da eta gazteen langabezia tasa %51,7ra iritsi da.

KAPITALISMOAREKIN AMAITUKO DUEN ALTERNATIBA IRAUTZAILEAREN ALDE!

Uztaileko egun erabakigarrietan, Syriza-ANELgo gehiengo parlamentarioak Demokrazia Berriko, To Potamiko eta PASOkeko diputatuen babesari esker egin zuen aurrera. Behin Syriako zuzendaritzak bide hau hartuta, Greziako eta Europako burgesiak amaierara heltzeko eskatu diote.

Iraileko hauteskundeak irabazi dituen arren Tsiprasen kapitulazioaren aurkako jarrera hazi egin da, bai Syriaren barnean eta bai ezker politiko eta sindikalean. Aurreko legegintzaldian Parlamentuan izandako Memorandumaren gaineko botazioan, Syriako diputatuen herenak, gehienak Ezkerreko Plataformako kideak, gobernuaren asmoen aurka bozkatu zuen. Hala egin zuten Komite Zentraleko 201 kideetatik 109k eta Syriako

hainbat talde eta herri komitek akordioaren aurkako adierazpena sinatuta. Hala ere, Syriako kritiko-koen sektore honek sortutako Herri Batasuna hautagaitzak (parlamentuan ordezkariarik gabe geratuta) ez du lortu hauteskundeetan jarrera hau islatzea.

Iraileko garaipenak zerbait leunduko duen arren, Tsiprasen politikak bere oinarri soziala astindu du. Aipagarriena da Syriako militantziaren eta gazte eta langile mugimenduaren sektore bat ez dagoe- la prest desmoralizazioan eta eszeptizismoan erortzeko. Beharrezkoa da sektore hauek Syriako zuzendaritza eta politika aldatzea.

Argi dago zein den Tsiprasen gobernu alditik ateratzen den ikasgaia: hersturarekin amaitzeko beharrezkoa da politika iraultzaile sendoa. Plan kontsekuente bakarra herritarrak, langile klasea eta gazteria mobilizatzea da multinazional handiak, banka eta latifundioak desjabetzeko, ekoizpena langileen kontrol demokratikopean jarrita, kapitalaren ihesa eta estatuaren kanpo merkataritzaren monopolioaren espekulazioa saihesteko. Azken finean, boterea hartzeko estrategia bat behar da eta langile klaseari eta bere erakundeei dei egin behar zaie lantokietan, sindikatuetan eta ikastetxeetan ekintza komiteak sortu eta politika honen alde borroka egiteko.

Hezkuntza publikoaren aldeko gazteriaren borrokak Wert botatzea eta errebalida frankistak bertan behera uztea lortu du

“Wert Legea” bezala ere ezagutzen den LOMCEk ikaslegeletan izango dituen ondorioei buruzko zalantzekin hasi da ikasturtea. Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, EAJren gobernuak LOMCE ez dela aplikatuko esan arren, martxan jarriko dira lege frankista honek biltzen dituen aldaketa batzuk. Horregatik, hezkuntza komunitateak ezin du EAJrengan konfiantzarik izan Madrilen aplikatutakoari aurre egiteko. EAJk hezkuntza publikoa suntsitzea defendatzen du hezkuntza negozio bezala ulertzen dutenen mesedetan. Gurasoen, irakasleen eta ikasleen borroka bateratuak bakarrik berma dezake kalitatezko hezkuntza publiko, doako, laiko eta euskalduna. Nafarroan ere, mobilizazioa oinarritzkoa izango da gobernu berriak atzera egin dezan bermatu ahal izateko, azken urteetan UPNk hezkuntza publikoan aplikatutako murrizketak bertan behera uzteko eta euskaraz ikasteko eskubidea errealitate bihurtzeko.

IKASLE SINDIKATUA

Pasa den uda honetan Rajoyen Gobernuak emandako atzera pausoek erakusten dute ikasleen antolakuntza eta borroka eraginkorra direla hezkuntza publikoaren aurkako erasoak geratzeko bide bakarra. Wert gobernutik atera zuten atzeko atetik eta zaratarik atera nahi izan gabe. Hezkuntza frankista inposatu nahi zuen ministro honek hezkuntza komunitate osoaren gorrotoa irabazi zuen. Wert eta hezkuntzako bere eredu klasista karga bat ziren PPrentzat hauteskundeetarako eta gobernuak paretik kentzeko erabakia hartu zuen; hori bai, erdi gordeka ibili ziren errealitatea zena ezkutatzeko helburuarekin: Wert ez da joan, bota egin dugu!

Presio sozialaren ondorioz PPK hauteskundeetarako aurpegia garbitzeko zuen beharragatik, Werten kanporatzeari mobilizazioaren beste garaipen bat gehitu zitzaion:

DBH eta Batxilergoko errebalida frankistak ezabatzea, LOMCEren neurri gogorrenetakoa. Azken urteetan estatu mailan izandako mobilizazio erraldoien ondorioz atzera egin behar izan dute hezkuntza publiko suntsitzeko beren estrategiako neurri gogorretako batean. Gobernutik bota baino lehenago!

PP amildegia hertzean dabil eta puntuak irabazi nahi ditu. 2016ko aurrekontuak “errekupe-razioaren” aurrekontuak bezala saldu nahi izan dizkigute. Osasunaren eta hezkuntzaren alde egingo dutela diote, baina propaganda hau guztia gezurra besterik ez da. Beken partida %0,2 bakarrik igotzen da Estatuko Aurre-



kontu Orokorretan, 1.472 milioi eurotaraino (PP gobernura iritsi baino lehen beketara bideratzen ziren 1.600 milioien azpitik geratzen da).

Beste “neurri handietakoa” jangela eta testu liburuetarako laguntzak berreskuratzea da, 24 milioi euroekin. Lau haizetara zabaldutako neurri hau, ordea, kasualitatez, PPk berak kendu zuen eta PPk guraizea sartu baino lehen aurrekontua 100 milioi eurokoa zen, eta orduan ere inondik ere ez zen nahikoa.

PP ETA EAJ LOMCE APLIKATZEN IKASTURTEAREN HASIERATIK

Propagandak propaganda, garbi dago PPren bide orriak berdina izaten jarraitzen duela: murrizketak eta murrizketa gehiago hezkuntza publikoari langileen seme-alabak ikasgeletatik kanporatzeko eta ikasketak ordaintzeko aukera aberatsek bakarrik izan dezaketen sistema sortzeko. Estrategia honekin bat egiten du, erabat, euskal eskuinak. Ikasturte honen hasieratik ikusi dugu EAJk zer egiten duen benetako orduan. Betiko helburuak bilatzen jarraitzen du eta, azken finean, PPk duen jomuga berbera du: hezkuntza publikoa eta gainontzeko zerbitzu publikoak suntsitzea eta hezkuntza pribatuaren, bankuen, enpresa handien eta inbertsio fondoen interesak eta pribilegioak defendatzea.

Euskal Herriko azken urteetako gurasoen, irakasleen eta ikaslearen mobilizazio sozialaren presioak EAJren benetako aurpegia erakutsi du. EAJren gobernuak mota guztietako eufemismoak bilatu behar izan ditu LOMCE aplikatzeak dakartzan neurriei buruz hitz egiteko (Heziberri Curriculum). Jartzen dioten izena jartzen diotela ere, EAJren helburua LOMCE aplikatzea izan da ikasturte hasieratik.



Ondorioa garbi dago. EAJk LOMCE aplikatzeko helburuan atzera egiteko bide bakarra dago: borroka antolatua. Komunikabideek datozen hauteskunde orokorretara mugatzen dute lege honen etorkizuna, baina PPk hauteskundeak galduko balitu ere ez dago bermatuta gobernu berriak LOMCE bertan behera utziko duela edo murrizketa gehiago egingo ez dituela. Gobernu berriak kapitalista handien presio handiak izango ditu, Iruñean Joseba Asironi, Barcelonan Ada Colauri edo ezkerreko gobernuak dauden udaletxeek gertatzen zaien moduan. Ikasle Sindikatuan borrokaren bandera altxatuta mantentzen dugu Estatu osoko ikasleekin batera, bai PPren gobernutik datozen murrizketei, eta baita Gasteizko EAJren gobernuak aplikatzen dituen ere, aurre egiteko.

KUPORIK EZ! MURRIZKETARIK EZ! ERREFUXIATUAK ONGI ETORRI!

Bestetik, ikasturte hau gazteriarengan ere eragin handia izan duen gertakizun batekin hasi da. Gerratik eta basakeriatik alde egin duten ehunka mila errefuxiatuaren irudiak ikusi ditugu Europa “zibilizatuarekin” talka egiten: ilara amaigabeak, alanbradak, poliziak eta baldintza miserableak dituzten kontzentrazio esparruak. Merkel, Cameron eta Rajoy bezalako agintari politiko europarren

jarrera lotsagarria izan da eta samenez bete gaitu. Agintari hauek ez dute inolako zalantzarik izan Afrikan eta Ekialde Hurbilean gerra inperialistak babesteko multinazional gutxi batzuen izenean. Herrialde osoak suntsitu dituzten hauek itxurakeria galanta egiten dute kameran aurrean errefuxiatuen egoeraz larrituta baleude bezala, baina beraiek dira milioika pertsonen sufritzen duten amesgaiztoaren arduradunak.

Banku eta multinazional handiei milaka milioi oparitzeko hezkuntza eta osasun publikoa suntsitzen dituzten berberak dira, Melilla eta Ceutan harresiak egiten dituztenak eta pasatzea lortzen duten etorkinak espeskeen moduko zentroetan sartzen dituztenak. Ikasle Sindikatutik, solidarioz aurkeztu nahi diren agintari europarren hipokresia salatzen dugu. Eta aldi berean, Euskal Herrian eta Europa osoan herritarren zati handi batek adierazitako elkartasuna ospatzen dugu.

Honegatik guztiagatik antolatu du Ikasle Sindikatuak irailaren bukaeran errefuxiatuen aldeko kanpaina Euskal Herriko eta Estatu-ko institutueta eta unibertsitateetan: garbi uzteko gu zapalduen aldean gaudela, bankuak salbatzeko baliabide guztiak errefuxiatuak hartzeko erabiltzea exijitzeko eta Europar bizi garen langile eta gazte guztiontzat ogia, aterpea, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza bermatzeko.

Kurdistan-Turkia:

Erdogan gerra bultzatzen eta ezker kurdua eta turkiarra erreprimitzen

Tayip Erdogan Turkiako presidentea eta inguruan duen oligarkia turkiarra Ekialde Hurbila eta bere herrialdea astintzen ari dira. Estatuko kupulak bere indar errepresibo guztia mobilizatu du milizia kurdu-siriarren aurrerakadaren (hauek dira Estatu islamiarra geratzeko gai diren bakarrak) eta Turkia guztian goraka doan ezkerreko mugimenduaren beldur (azken hauteskundeetan HDP Herrien Alderdi Demokratikoak lorturiko botoen %13ak adierazten duen bezala). Helburua PKKren Kurdistango gerrilla historikoa azpiratzea eta ezkerreko erakunde kurduak eta turkiarrak zapaltzea da. Era berean, bidea prestatu nahi du mendebaldeko Kurdistanen edo Kurdistan siriarrean dauden Rojava miliziei aurre egiteko. Yihadismoaren aurkako borroka aipatzea aitzakia bat besterik ez da.

IKER OTERMIN

Uztailaren 25ean hasi ziren operazio militarrek. Erdoganek eta Ahmet Davutoglu, ekainaren 7ko hauteskundeetatik dagoen lehen ministroak, “terrorismo mota guztien” aurka joango zirela esan zuten baina errealtatea erabat ezberdina da. Uztailaren 26an armada turkiarrak Rojavako milizia kurduak kontrolaturiko bi eskualde klabe bonbardatu zituen: Zon Mixar eta Tel Findir. Biak postu estrategikoak dira Kobane herri kurdua defendatzeko; herri hau yihadistek hartu zuten eta gero kurduak berreskuratu. Beste hitz batzuetan esanda: inperialismo turkiarrak ez du inolako arazorik Elren aurkako gerra ahultzeko, beraiek sortu baitute eta oraindik erabilgarria baita beren interesak defendatzeko.

Aldi berean aurrera daramatzate atxiloteta masiboak, Istanbulko eta Ankarako auzo xumeen okupazio polizialak, herri kurduen okupazio militarrek eta protesta guztien aurkako errepresioa. 1.500 atxilotu baino gehiago daude; “terrorista yihadista eta kurduak” deitzen zaie, baina egia esan %85a ezkerreko erakunde

kurdu eta turkiarretako militanteak eta jarraitzaileak dira. Gutxienez bost pertsona erail dituzte manifestazio edota sarekadetan, eta 60 pertsonatik gora daude desagerturik. Operazio hauek guztiak ekainaren 23an hasi ziren, PKKren aurkako bonbardaketak hasi baino bi egun lehenago. Ehun web, Twitter eta Facebook orri baino gehiago itxi dituzte. Hauek erabat kontrolaturik daude

Suruçeko sarraskiaren ondoren eta debekaturik dago honen irudiak zabaltzea. HDPe 26an manifestazioak deitu zituen herrialde guztian. Gogor erreprimituak izan ziren, batez ere Istanbulko. Ankarako poliziek Egitim-Sen sindikatuaren lokala okupatu zuten eta 40 pertsona atxilotu zituzten, horien artean bederatzi Kobanen yihadisten aurka borrokatze-tik zetozen. Bertan osasun tratamenduak hartzen ari ziren eta medikua bera ere atxilotu zuten. Ekintza honen aurkako protesta batean, berriaz, beste 46 atxilotu zituzten. Horren aurrean, Istanbulko Gazi auzoan herritarrek barrikadak altxa zituzten poliziari sarrera mozteko.

HELBURUA: ESTATU ISLAMIARRAREN AURKA BORROKAN DAUDEN MILIZIAK AHULTZEA

Erdoganek milizia kurduak ahultzea du helburu, bai Rojavakoak eta bai PKKkoak. Beretzat benetako arriskua dena, Turkiako hegoaldeko mugan gehiengo kurdua edukiko duen lur eremu autonomo bat sortzeko au-





kera da eta, era berean, eremu hori, armaturiko herritarrek askatua izanik, erreferentzia eta alternatiba antisektario eta askatzaile bihurtzea inguru guztiko langile, gazte eta emakumeentzat. YPG eta YPJren azken aurrerakadek (Herriaren Babes Unitateak eta emakumeen tropek osatzen duten Emakumearen Babes Unitateak) aukera hori inoiz baino gertuago ezartzen dute.

Milizia kurduak (eta aliatu arabiar eta asiriarrek) yihadisten ahulgunea zein den agerian utzi dute: horiek lehen aldiz aurre egin behar izan diote benetako herri armada bati, inongo klase dominatzaileko sektore baten pribilegioak mantentzeko borrokatzen ez duen armada bati. Hori da aurkari serioa, eta ez egun Turkia, Arabia eta Estatu Batuen finantzazio eta onespina duen eta Al-Qaeda ren aliatu diren Armada Libre Siriarreko batailoi islamistak edo armada irakiarra eta paramilitar xii-tak. Kurduak geldiarazteko EIk duen ezintasunaren aurrean, Turkia bigarren honi laguntzera joan da.

Erdoganek hasi duen gerrak epe motzeko helburu bat ere badu. Kanpaina militarista eta chauvinista gogor honekin aliantza bat sendotu nahi du MHP eskuin muturreko alderdi nazionalistarekin, hala parlamentuan elkarrekin gehiengo edukiko luketelako edo hauteskunde berri batzuetarako egoera hobean legokeelako.

Noski, ezker turkiarra eta kurdia ahultzea, Rojavako miliziei lana zailtzea eta PKKko jo puntuak erasotzea ere badaude helburuetan. Oligarkia turkiarrak bere arrazoiak ditu gatazka kurdia arlo militarrean era-

mateko: batetik, Ekialde Hurbileko armadarik indartsuena du; bestetik, modu horretan gizarte turkiarraren militarizazioa inposatzen du eta, azkenik, ezkerre erreprimitzeko aukera du. Izatez, HDPko diputatuei immunitatea ken diezaieten estutzen hasi da Erdogan eta hau HDPren ilegalizazio bidean pauso bat litzateke.

Hala ere, Erdogan eta bere ingurukoak suarekin ari dira jolasean. Irak iparraldean esku hartzeak (protesta eta manifestazio masiboak izan dira) eta YPG eta YPJren aurkako gudak ondorio lazgarriak izango ditu Ekialde Hurbileko masentzat, eta inkognita asko sortzen ditu. Baina ez dago inolaz ere ziurtaturik PKK zapaltzea lortuko dutenik, ezta Rojavako miliziak ere; iraganean ere ez zuten lortu benetako genozidio bat aurrera eramanda PKK zapaltzea.

Inperialismo estatubatuarra eta Europako Batzordea, komunikabideetan bestelako irudia eman nahi badute ere, Estatu turkiarraren alde daude erabat. Estatu Batuak are konprometituago dago Erdoganek bi base militar erabiltzen uzteko promesa egin zientetik, teoriarik, Elren aurkako operazioetarako. Zonalde guztia hartzen duen interesen arteko borroka honetan, Estatu Batuetako, Israeleko, Arabiako eta Turkiako klase dominatzaileek, berez aliatu direnek, norberak beren agenda propioa du, eta batzuetan elkar talka egiten dute, baita militariki ere. Baina berehala jar daitezke ados, klaseko alternatiba antikapitalista baten mehatxuaren aurrean, honek masen arreta erakar badezake. Ekialde Hurbilerako Obamaren aholkularia den Brett McGurk oso argia izan

zen: “PKKren eraso terroristak kondenatzen ditugu eta gure aliatua den Turkiaren autodefentsarako eskubidea errespetatzen dugu”.

GORAKA DOAN MUGIMENDUA, KURDISTANEN ETA TURKIAN

Turkiako gobernuaren maniobrak ez dira hain errazak izango, ezta etxean bertan ere. Mugimendu kurdia eta Turkiako herri mugimendua hazten ari dira. Atxiloketek eta erailketek ez dute geldiaraziko. Erdoganek bere ekintzak yihadismoaren aurkako borrokan justifikatu behar izateak erakusten du geroz eta sektore zabalagoek ukatzen dituztela kurdien aurkako aurreiritziak. Herritarren gehiengoak, inkesten arabera, mota guztietako esku hartze militarren aurka dago.

Testuinguru honetan, berebiziko garrantzia du PKKko zuzendaritzak eta HDPkoak duten jarrera. PKKak, logikoki, indarrean zegoen su-etena hautsitzat jotzen du eta ekintza armatura itzuli da, konboi militarrei segadak egiten eta aparatu polizialean infiltraturiko yihadistak erailtzen. HDPei gobernuak “herrialdeari su emanez” Turkia gerra handi batera eramateko eta militarismo eta nazionalismo klima bat eratzeko duen asmoa salatzen du. PKKri “armak isilarazteko” eta gobernuari ofentsiba gelditzeko deia ere egin du. Noski, komunitate kurdien autodefentsarako eskubidea gauzatzea, ezker kurduaren eta turkiarraren erakunde eta militanteena barne, funtsezkoa da. Era berean, oinarritzeko da ulertzea zein den mugimenduaren indar iturria: duen izaera masiboa, eta eremu osoan, batez ere Turkian, masa zabaletara iristeko duen gaitasuna. Masa mobilizazioaren bitartez beharrezkoak dira defendatzea Erdoganaren dimisioa, herri kurduaren autodeterminazio eskubidea, banda yihadisten desgitea eta estatu-aparatuaren depurazio zorrotza, eta lurraldeko baliabideen kontrol demokratikoa inperialismoa eta burgesia ezberdinak desjabetuz; azken finean, zonalde guztiko federazio aske eta sozialista: hau da herri kurduaren eta Turkiako beren klaseko anai-arreben armarik zorrotzena.

Ehunka mila errefuxiatu gerratik eta basakeria inperialistatik ihes egiten

Europa kapitalistak errepresioarekin, hesiekin eta xenofobiarekin erantzun du

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

edo gune geostrategikoak kontrolatzeko helburuarekin potentzia ezberdinek (eta hauei lotutako multinazionalak) antolatutako interbentzio militar inperialistak daude. Errefuxiatu gehienak potentzia europar eta estatubatuarrek (herrialde horietan dituzten aliatuekin batera) bultzatutako triskantza inperialistetatik ari dira ihes egiten.

BASAKERIAREN GEOGRAFIA

Afganistan: AEBen eta NATOren 13 urteko presentzia militarra erabateko porrota izan da 2001eko inbasioaz geroztik (2014ean “utzi” zuten herrialdea baina oraindik 10.000 militar estatubatuar daude). Talibanak kontrola berreskuratzen ari dira lurralderaren zati handi batean; bitartean, Kabulgo gobernuak (Mendebaldearen aginduetara eta heroina trafikoaren sareekin lotuta dagoena) ekonomia afganiarra xahutzen jarraitzen du. Europara iristen diren errefuxiatuen %12 Afganistango da. Horietako asko emakumeak dira, esklabutzatik eta biolentzia basatitiki ihes egiten dutenak.

Irak: Afganistanen gertatu bezala, 2003ko inbasio estatubatuarrek herrialdea kaosean hondoratzeko bakarrik balio izan du. Bitartean, Mendebaldearen aliatuak direnek (Arabia Saudi, Qatar eta Turkia) sortu eta finantziatutako talde yihadistak garatu dira. Tropa estatubatuarrek ekonomiaren eta zerbitzu sozialen hondamendia ekarri zuten herrialdeko zati handi batean pobrezia zabalduz. Suntsiketa hau izan da Irakeko eta Siriako eremu esanguratsuak kontrolpean dituen Estatu Islamikoaren garapenaren ongaria.

Siria eta Libia: Udaberri Arabiarrak bezala ezagutu zen leherketa

iraultzaileak arriskuan jarri zituen interes inperialistak. Langileen eta klase zapalduen mugimenduak mendebaldeko potentzien aliatuak ziren gobernuak botatzeko aukera oso handia zen. Prozesu hau geldiarazteko, AEBek eta Europako Batasunak (Turkia eta Arabia Saudiren laguntzarekin) plan kontrairaultzaileak bultzatu zituzten talde yihadistak finantziatuz eta armatuz. Siria eta Libiako gerrak dira estrategia honen adibide onenak. Siriatic (11 milioi desplazatu) errefuxiatuen %43 datoz Europara, eta Libian 500.000 barne desplazatu daude dagoeneko (6 milioi biztanle ditu herrialdeak).



Afrikako Adarra: Pobrezia eta goseak gehien kolpatzen duen munduko zonaldeetako bat da, eta merkantziak, petrolio eta kontrabandoko armak garraiatzeko bere egoera geostrategikoagatik presentzia inperialista handienetakoa du. Somalia (%3rekin) eta Eritrea (%10ekin) dira Europarantz datozen errefuxiatuen beste bi herrialde. Somaliaren kasuan, amaierarik ez duen 24 urteko gerra dago. Eritrean, berriz, gobernu diktatorial eta errepresioa dago independentzia lortu zuenetik, eta hiru hamarkada iraun dezakeen zerbitzu militarra du (herrialdetik ihes egiteko arrazoietakoa bat haxe da).

Hego Sudan: 2011n independentzia lortu zuen eta potentzia handi

guztiekin ongi etorria eman zioten “munduko nazio gazteena” bezala aurkeztuz. Errekonoizimendu honen atzean, ordea, bertako petrolio erreserbak eta multinazionalak hauek zeuzkaten interesak zeuden. 2012ra arte gobernuak goi mailako funtzionarioak 4.000 milioi dolar eskuratu zituzten petrolioari esker. Hego Sudan, nazio afrikar gehienak bezala, hainbat etniaz osatutako estatu artifiziala da. Potentzia inperialistak etnia hauek manipulatzen saiatzen dira etengabe beren interesak defendatzeko. 2013an gatazka armatu berria hasi zen bi talde etniko nagusien artean (nuer-ak eta dink-ak). Gatazka honen atzean bertako petrolio kontrolatzeko Txinaren eta AEBen arteko borroka dago. Ordutik, Hego Sudanen sufrimendua ikaragarria izan da: 50.000 hildako, 50.000 errefuxiatu eta bost milioi desplazatu.

Nigeria: Independentzia lortu zuenetik monopolio kapitalista nazional eta internazionalen zerbitzura egon diren agintari ustelek gobernatu dute. Baliabide energetiko izugarriak izan arren, 10 pertsonetatik 8 dolar bat baino gutxiagorekin bizi dira, bizi itxaropena 52 urtekoa da, gazteen analfabetismoa %83koa da eta ez dago inolako osasun harretarik edo zerbitzu sozialik. Egoera honi guztiari, eta baita berari esker ere, Boko Haram gerri-lla yihadistaren ekintza armatua gehitu zaio azken urteetan. Honek eragindako gerrak bi mila hildako baino gehiago eta 1.300.000 desplazatu baino gehiago eragin ditu. Europara iristen diren errefuxiatuen %5 Nigeriatik datoz.

Aurreko adibide hauek garrantzitsuenetakoa batzuk besterik ez dira, gatazka asko ikusi ditugu azken urteetan: Kosta Marfil, Errepublikak Zentroafrikarra, Mali, Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Bu-

rundi Afrikan; Israelek etengabe erasotzen ditu herri palestinarrak eta Libano, Yemen eta Pakistanen arteko gerra amaigabea da. Hauei Amerika Latinan eta Ertamerikan hildakoak eta desagertutakoak gehitu beharko litzaizkieke: Mexikon bakarrik 80.000 hildako kalkulatzen dira narkotrafikoaren, ejertzitoaren eta poliziaren biolentziaren ondorioz azken hamar urtetan bakarrik. Eta honetaz gutxi hitz egiten bada ere, Europa barneko milaka desplazatu eta errefuxiatu daude: 900.000 ukrainar, 30.000 kosovar, eta milaka serbiar eta mazedoniar babes bila dabilta iparraldeko herrialdeetan eta Europako erdigunean. Kasu hauetan ere inperialismo europarren eta estatubatuarraren ekintza militarrek dira arduradun.

HARRESIAK ETA ERREPRESIOA ERREFUXIATUEN AURKA: 'SOZIALISMOA EDO BASAKERIA'

Gobernu europarrek errefuxiatuen auziaren aurrean izan duten jarrean kasualitate gutxi dago. Europar Batzordeak 160.000 errefuxiatu hartzeko iraila hasieran egindako proposamena demagogia hutsa besterik ez da. Hori eginda ere, nolako konponbide mota da hau Batzordeak berak dagoeneko 500.000 iritsi direla onartzen duenean eta etorkizunean gehiago etorriko direla kontuan hartuta? Bost axola Europako gobernuak ehunka mila errefuxiatuei gerta dakiekena. Hala ere, zer espero daiteke kapital handiaren aginduetara dauden ordezkariengandik? Beren herrialdeetan murrizketen eta hersturaren politika kriminala aplikatu dute, beren herrikideak miseria bidaltzen ari dira, Grezia hondamendira daramate... Zer egingo dute, bada, kanpotik datozenekin?

Noizean behin demagogia erabiliz elkartasunaz eta giza eskubideez hitz egiten duten arren, Europako gobernuen benetako plana errefuxiatuak beren herrialdeetara ez iristea da eta heltzea lortzen dutenak kontzentrazio esparruetan (baldin-



tza miserableetan) pilatzea eta ahal bezain pronto kanporatzea. Orain dela hilabete batzuk Berlingo harresiaren erorketaren 25. urteurrena ospatu zuten gobernariak mota guztietako harresiak eta hesiak onartzen eta finantzatzen ari dira Europa "ixteko". Oraingoz guztira zazpi gune hesitu daude edo ari dira erakitzen helburu honekin: 12,5 km Erdine probintzia turkiarren (Europako Batasuneko 3 milioi euroekin finantzatuta); 80 km-ra luzatu nahi diren beste 30 km Bulgaria eta Turkiaren arteko mugan (hau ere EBko diruarekin), 4 m-ko altuerako 132 km Hungaria eta Serbia banatzeko; 12 km Melillan eta beste 8 Ceutan; eta Estatu frantziarraren eta Erresuma Batuen arteko Calaisen hesi bat egiteko proiektua dago.

Alemania hiltzea da errefuxiatu gehienek helburu nagusiakoa. Baina hemen ere gerra guneetako antzeko kanpamentuetan pilatzen dituzte oso baldintza kaxkarretan (zerbitzu medikuen eskasia, higiene arazoak...). Aldi berean, Angela Merkelen gobernuak zentro hauetarako laguntzak mugatzen ari da errefuxiatuen bizi baldintzak gero eta gehiago okertuz. Honekin batera, deportazioen kopurua handitzen ari da, eta aurten errekorrak hautsiko ditu gobernu alemaniarrek eginkizun honetan. Hau gutxi ez eta Angela Merkelen CDU, SPD

sozialdemokrata eta Berdeak asilo eskubidea kentzea edo mugatzea planteatzen ari dira.

Merkelen adierazpen hipokritetatik haratago, erabateko permissibitatea dago Alemanian ere talde neonazien eraso arrazistekin, errefuxiatuen aurka klase politikoa egiten ari den adierazpenek bultzatuta. Hau guztia estrategia bati lotuta dago: Alemaniara iristeko helburua duten errefuxiatuak uxatzea eta, aldi berean, Italiak eta Greziak lan zikina egitea beren lurraldeetan Ekialde Hurbiletik datozenek bidea ixten.

Ez noski, arazo honek ez du benetako konponbiderik gaur egun dugun sistema ekonomiko eta politikoa, kapitalismopean. Sistemaren krisiak tentsio interinperialistak areagotu besterik ez ditu egiten eta honen ondorioak ezagutzen ditugu: gero eta gerra eta gatazka gehiago pobrezian eta miseria erortzen diren herrialdeetan. Europan bertan ere hor ditugu Ukraina eta Kosovoko adibideak, aspaldi honetan komunikabideetatik ia desagertuak. Arrazoi zuen Rosa Luxemburgok "sozialismoa edo basakeria" aldarrikapena egin zuenean. Kapitalismoak jarraitzen duen bitartean gerrak, pobrezia, langabezia eta sufrimendua ez dira amaituko. Sozialismoa da gizateriaren oinarritzko arazoentzako alternatiba bakarra.

Ehunka mila errefuxiatu gerratik eta basakeria inperialistatik ihes egiten Europa kapitalistak errepresioarekin, hesiekin eta xenofobiarekin erantzun du

Grezian, Serbian, Hungarian, Mazedonian, Austrian, Alemanian... sartu nahian ikusi ditugu azken hilabeteetan milaka eta milaka errefuxiatu gerratik eta miseriatik ihes egiteko helburuarekin. Europa osoko milioika herritarrek ikusi ahal izan dute kapitalismoaren benetako aurpegia. Milaka hil dira Mediterraneo itsasoan, desertuetan, eta Europako mugetara iristea lortu duten familia osoak animaliak baino okerrago tratatu dira. Parke publikoetan, tren geltokietan edo alanbradez inguratutako gunetan pilatu dituzte, jipoitu eta umiliatu. Gobernatzen gaituen sistemaren oinarritzko ezaugarriak zeintzuk diren gogorarazten digu basakeria honek guztiak.



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

1939ko urtarril hotzean Estatu fran-tziarrera alde egin zuten milaka haien exilioarekin konparatu izan da egoera. Orduan ere, "Frantzia askeko" gendarmeez kontzentrazio esparruetan sartu zituzten faxismoaren hatzaparretatik ihesean zihoazenak.

Ekialde Hurbila edo Afrika zapaltzen dituen burgesia europarrak eta herrialde hauek xahutzeko gerra

inperialistak babesten dituzten agintariekin beren mespretxua adierazi zuten hasieratik "etorkin ilegalez", "kupoez" eta "legea errespetatzeaz" hitz egitean. Bere garaian Hitlerren, Mussoliniren, Francoren eta Amerika Latinako hainbat herrialderen diktadurak babestu zituzten berberak dira. Gizateria eta bizitza defendatzea nahi badugu garaitu beharra dagoen sistemaren defendatzailerak dira.

Gaur egun, 60 milioi desplazatu daude munduan gerren eta gatazka armatuen ondorioz eta horietatik 20 milioi errefuxiatuak dira. Bigarren Mundu Gerratik ezagutzen ez den basakeria da. Komunikabide handiek "mafia trafikatzaillez" hitz egiten dute basakeria honen atzean dauden benetako arrazoiak ezkutatzeke. Egoera larri honen atzean, ordea, lehengaiak, bide komertzialak

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!
JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net

Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista